

2006ko uztailearen 20ean, ASTEARTEA, arratsaldeko BEDERATZIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ez Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

### EGUNEKO AZTERGAIAK.

1.- UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN BIGARREN HASIERAKO ONARPENAREN AURKA TARTERATUTAKO ALEGAZIOEN AZTERKETA.

2.- UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN BIGARREN HASERAKO ONARPENAREKIKO ALDAKETAK AZTERTU ETA BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEKO DOKUMENTUAREN ERREDAKZIOA PRESTATZEKO ESKATZEA, BIDEZKOA BADA.

Aduna, 2006ko uztaileak 18.

ALKATEA.

## **2.006KO UZTAILAK 20.**

### **EZ OHIKO PLENOA.**

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.

Antton Artola Ibareguren.

Patxi Ormaetxea Otegi.

Miren Aburuza Alkorta.

Javier Zabala Zabala.

Bertaratu gabea:

Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko uztailaren hogeiko hogeita bat ordu eta berrogei minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

#### **LEHENE NGO PUNTUA:**

#### **UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN BIGARREN HASIERAKO ONARPENAREN AURKA TARTERATUTAKO ALEGAZIOEN AZTERKETA.**

Udal Plangintzarako Ordezko Arauen berrazterpenaren bigarren haserako onarpenari egindako alegazioak aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

- **1 zk. alegazioa: JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA jaunak aurkeztua.**

### **Alegazioaren edukia:**

Interesatuak, Elbarrena auzoko Gaintzabekoa baserriko lurjabe gisa dihardu. Laburbilduz, honako alegazioak egin ditu:

#### **1. 5B Alderdiari dagokionez:**

a) “5B Alderdiaren” mugetan akatsa antzeman daiteke, “5A” lurzatiarekiko muga hain zuzen ere; beraz, hori zuzen dadin eskatzen du:

b) 5B lurzatia eta 6 Alderdia bere titularitatekoak direnez, aipatu 5B lurzatiaren eta 6 Alderdiaren arteko muga doitzea proposatzen du, eraikuntzarako lizentziaren espedientean edota Xehetasunezko Azterketa tramitatuz, bestela.

c) Gehiegizkoa eta kaltegarria deritzo espaloi publikoa luzatzeko lurra laga eta kanpoaldeko bide publikoaren luzera osoan hiritartu beharra. Horrela bada, 5B lurzatiaren aurrealdean, espaloia egiteko lurra laga eta berori egiteko obligazioa ahal den neurrian arintzea eskatzen du.

#### **2. 6 Alderdiari dagokionez:**

a) Aipatu 5B lurzatiaren eta 6 Alderdien arteko muga doitzea proposatzen du, eraikuntzarako lizentziaren espedientean edota Xehetasunezko Azterketa tramitatuz, bestela.

#### **3. 10 Alderdiari, “Urtaki Bi”, dagokionez:**

a) Arauen dokumentu berrian jasota dagoen 10. Alderdiaren Arau Partikularreko dokumentazio grafikoa aztertuta antzeman daitekeenez, eraikuntzatik 10B esparruko mugara, 6 Alderdi aldera, gorde beharreko tartea ez da iristen Udalak ezarritako 10 metroko distantziara. Beraz, Arau Partikular hori aurrez aurkeztu eta Udalak osoko bilkuran onartutako erabakira egokitzea eskatzen du.

**4. Tolosaldearako ur hornidurarako sarearen azpiegiturari dagokionez:**

a) Uraren hornidurarako sarearen trazadura aldatzea eta, hiriarteko errepidea egiten den heinean, berorren azpitik bideratzea eskatzen du; izan ere, gaur egun aurreikusita dagoen trazadurak kalteak eragingo baitizkio.

**5. Udal zerbitzuen azpiegiturei dagokienez:**

a) Azpiegitura horiek hiriarteko errepidearen azpira lekualdatzea proposatzen du.

**6. Saneamendu sareari dagokionez:**

a) Sare hori zuzentzea eta Gaintza Behekoa Bi lurzattia zeharkatuko lukeen trazadura ezabatzea eskatzen du.

**Alegazioari dagokion erantzuna:**

5B lurzatiaren eta 6 Alderdiaren arteko muga egokitu egingo da. Espaloi publikoa egiteko lurra laga eta espaloia hiritartzeko obligazioari dagokionez, berriz, ezinbestez bete beharrekoa da; beraz, ildo horretan, alegazioa ez da onartuko.

“Urtaki Bi” izeneko 10 Alderdiari dagokionez, dokumentazio grafikoa zuzendu egingo da adostutakoaren arabera eraikuntzatik 10B esparruko mugara gutxienez 10 metroko tarte geratzen, neurketan okerrik izan bada behintzat.

Uraren hornidurarako sarearen azpiegiturari dagokionez, trazaduraren auzia ez da dokumentu honetan erabaki beharreko gaia. Trazadura hori plangintzaren garapenerako dokumentuetan aztertuko da, saneamendu sarearen trazadura bezalaxe. Hala eta guztiz ere, oraingoz behintzat, estolderiaren trazadura bere horretan mantenduko da.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKI DA:

**HEIN BATEAN ONARTZEA JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA jaunak** aurkeztutako alegazioa.

- **2 zk. alegazioa: JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA jaunak eta beste batzuk aurkeztua.**

### **Alegazioaren edukia:**

1. Interesatuak, Agaramundo baserriko lurjabe gisa dihardu. Laburbilduz, honako alegazioak egin ditu:

2. Hiriarteko errepide berriari dagokionez, eraikuntza gauzatzearen ondorioz sortuko den errepidea Agaramundoko lurzatitik aldentzea proposatzen du. Eta, aldentze hori Arau Partikularrean jaso dadin proposatzen du, esparruaren antolamendurako egiten den Alorreko Planean eta dagokion Hiritartze Proiektuan irizpide orokor gisa jarraitu dadin.

3. Ezarri behar diren zuzkidura publikoen kopurua aztertzeke eta, bidezko bada, malgutzeko aukera ematea eskatzen du, alor honetan aurreikusitako hirigintza probetxamenduak bideragarriak izan daitezen.

4. “Zubitxiki Bat” izeneko 7. Alderdiari buruzko Arau Partikularrari dagokionez, Xehetasunezko Azterketa bat tramitatzeko aukera eskatzen du, lurzatiko probetxamenduak eta bolumenak berrantolatzeke xedapenak egokitzearren. Gainera, lurzati osoan esku hartzeko aukera eskatzen du, erantsitako bolumenak berrantolatzea ahalbidetuko den moduan eta probetxamendu horiek baserriaren bolumen nagusian txerta daitezen proposatuz.

5. Bestetik, lurzatiaren hego-mendebaldean, alderdira eta Adunako herrigunera sartzeko errepidearen ondoan aurreikusi den espaloitari dagokionez, gehiegizkoa deritzo emango zaion xederako. Beraz, espaloi hori murriztea eskatzen du.

### **Alegazioari dagokion erantzuna:**

Hiriarteko errepide berriaren behin betiko trazadura plangintzaren garapenerako dokumentuetan aztertuko da.

Eta, Alor honetan aurreikusitako zuzkidura publikoen kopuruari dagokionez, lege ezarritakoak bete behar dira; eta, ez litzateke bidezkoa aurreikusitako berdeguneak murriztea, Udalaren helburu nagusietako bat berdeguneak ezartzea baita hain zuzen ere.

Eta eraikuntza-eranskinak berrantolatu eta 7. Alderdiko bolumen nagusian txertatzeko proposamen hori ez da inondik inora onargarria; izan ere, baserria inolako eranskinik gabe babestua dagoenez, bere gaur egungo eraketarekin mantendu behar da.

Lurzatiaren hego-mendebaldean aurreikusi den espaloia behar-beharrezkoa da; beraz, gure iritziz ez da murriztu behar.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKI DA:

**HEIN BATEAN ONARTZEA JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA jaunak eta beste batzuk aurkeztutako alegazioa.**

**\* 3 zk. alegazioa: JOSEFA ABURUZA EIZMENDI andreak aurkeztua.**

**Alegazioaren edukia:**

1. Lurzatiak baditu lur eremu hiritar gisa sailkatzeko behar diren zerbitzu guztiak; lur eremu gisa sailkatzea egintza fisikoaren baitan dago eta Administrazioak errealitate horri begiratu beharko lioke. Beraz, errealitate hori Administrazioak hartzen dituen xedapenetan ezinbestez islatu beharko litzatekeenez, alegaziogilearen lurzatia lurzoru hiritar gisa sailkatzea eskatzen du.

2. Gainera, bere jabetzako lurzatia Eluts izeneko 14. Alorraren barruan geratuko litzateke eta, ondorioz, elkartasun printzipioa ez litzateke beteko; izan ere, babes publikoko etxebizitza osoa esparru batean ipiniko litzateke beste esparruei konpentsaziozko zamarik ipini gabe.

3. Bestetik, lurzatiari probetxamendu txikia esleitu zaio, bai aurreikusi den etxebizitzaren tipologiagatik eta baita, dagoen lur eskasia dela-eta, derrigorrez bete beharreko udalaz gaindiko organoek emandako jarraibideek, okupazio eta eraikigarritasun handiagoa ematea gomendatzen dutelako.

4. Alegaziogilea ez dago ados arrazoirik gabe desjabetzpen sistemaren bidez jardutearekin; izan ere, ahal den neurrian, konpentsazio sistema edo lankidetzakoa lehenetsi behar baitira. Bere iritziz, benetako larrialdia edo premia dagoenean bakarrik jo behar da desjabetzpen sistemara, hainbanaketa lortzeko bidezkoagoa baita konpentsazio edo lankidetzaz sistemaz jardutea.

5. Ekonomikoki bideragarria den antolaketa proposatu behar da; hau da, ingurunea errespetatuko duen, lurzatiaren eraketa aintzat hartuko duen eta ekonomikoki bideragarria den antolaketa mota erantsi behar da.

#### **Alegazioari dagokion erantzuna:**

Hasteko esan behar dugu interesatuak jarritako alegazio horiek, hasieran lehen aldiz onartutako dokumentuan jasotako antolaketa-aurreikuspenekin lotuta daudela zuzenean. Baina gero, hainbat aldaketa sartu eta dokumentu berria egin zen eta horrek ere hasierako onespena jaso zuen bigarren aldiz. Eta, orain aztergai ditugun alegazioak, bigarren dokumentu horri jarritakoak dira, hain zuzen.

Edonola ere, bidezko zerbitzuak dituen lurra lurzoru hiritar gisa sailkatu behar dela dioten epaiak aipatzen ditu alegaziogileak. Baina ez du aintzat hartu jurisprudenziaren joera berria; eta, horren arabera, lurzoru bat zuzenean lur hiritartzat hartu ahal izateko, zerbitzu guztiak izateaz gain “hiri bilbearen” barruan egon behar du, hau da, lur eremu hiritarrez inguratuta egon behar du.

Kasu honetan, ordea, alegaziogileak aipatzen duen lurzati hori lur eremu hiritarraren mugan dago; hau da, ez dago lurzoru hiritarrez inguratua. Beraz, ildo horretan behintzat, alegazioak ezin du aurrera egin, inolaz ere.

Gainera, eremu horretan ezingo litzateke ipini alegaziogileak nahi duen etxebizitza kopurua, udalerrian aurreikusita dagoen ia-ia eskaintza osoa bertan eraikitzea aurreikusten baitu. Ez da ahaztu behar plangintzaren dokumentuan gehieneko etxebizitza kopurua ezarri dela eta hori, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketarako Batzordeak mugatutakoaren arabera ezarrita dago.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKI DA:

**EZESTE A JOSEFA ABURUZA EIZMENDI andreak** aurkeztutako alegazioa.

## **BIGARREN PUNTUA:**

### **UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN BIGARREN HASERAKO ONARPENAREKIKO ALDAKETAK AZTERTU ETA BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEKO DOKUMENTUAREN ERREDAKZIOA PRESTATZEKO ESKATZEA, BIDEZKOA BADA.**

Adierazitakoari jarraituz eta aintzat harturik hasierako onespena jaso zuen dokumentua, Udalaren irizpideak, dagoeneko izenpetuta dauden hainbat hitzarmen eta hein batean onartu den alegazioaren bat, Alkateak proposatzen du behin-behineko onespenerako dokumentu hau eratzea honako zuzenketa hauek eginez :

1. 1 Alderdia. Lurzati bat edo besteren jabaria aldatzea.
2. 1. Alderdia. Eluts ondoan espaloia eranstea.
3. 2 Alderdia. Lurzati bat edo besteren jabaria aldatzea.
4. 7 Alderdia. Zubitxiki Bat eta Biren artean espaloia bat sartzea.
5. 10B Alderdia. Lurzoru eraikiezinaren azalera zabaltzea.
6. 11 Alderdia. Lurzati bat edo besteren jabaria aldatzea.
7. 13.2 Alderdia. Lurzati bat edo besteren jabaria aldatzea.
8. Atari-aurrean, probetxamendurik konputatuko ez duen azalera 10 m<sup>2</sup>-tik 15 m<sup>2</sup>-ra pasatzea.
9. 101. artikuluan, landaketen arteko tartea aldatzea.
10. 104. artikuluan, ezabatu egin dugu 10.000 m<sup>2</sup>-ko gutxieneko lurzatia.
11. 104. artikuluan, gutxieneko distantzia 80 m-tik 70 m-ra pasatzea.
12. Lardiko Alorreko Planaren aipamena egitea.
13. Lurzoru hiritarrezinean ordezkapenik eginez gero herrigunera utzi beharreko tartea mugatzea.
14. II.3 planoan grafiatutako bideren baten erabilera aldatzea.
15. II.5.1 planoan, Lardirako bidearen trazadura aldatzea.
16. II.11.2 planoan, saneamenduko azpiegituraren bat aldatzea.
17. II. planoan, nekazaritza eta abeltzaintzarako eremu gehiago mugatzea.
18. Erribera inguruan hainbat akats zuzendu dira; esate baterako, 5B 19. Alderdian 5A lurzatiarekiko utzi beharreko tartea zuzendu eta 6 Alderdiarekiko muga egokitzea. Era berean, zuzendu egin dugu eraikuntzatik 10B esparruaren mugara utzi beharreko 10 metroko tartea.
19. Kelsen eremuan, jarduera bakar baten ordezkari bi onartzea.
20. “Zubitxiki Bi” eremuan, oraingo ekipamenduak eta bideak publikoak izatea.
21. “Zubitxiki Bi” eremuan, 8 metro zabaleko lur eremu eraikiezinaren eranstea unitatean, enpresaren martxak hala eskatzen baitu.
22. Ordenantzetan beste artikulua berri bat sartu da. Eta horretan, erriberako bide sistema orokorra gauzatzearen ondorioz mugak doitzeko aukera aurreikusita da.

onarpena

Aldi berean, Udalbatzak, aho batez, Arauak prestatu dituztenei behin behineko emateko dokumentuaren erredakzioa prestatzeko eskatzea erabaki du.

amaitu

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta hamar minutu direnean, Batzarra da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.